

# Ezpalak

JON TORNER

**Edouard Glissant** Martinikako olerkaria izango da Itsasuko Errobiko Festibaleko gonbidatu nagusia. Uztailearen 19tik 21era bitartean ospatuko da jaialdia. Musikari, dantzari eta kantarien emanaldiez gain tailerrak eta erakusketak ere izango dira hamabigarren edizioan. Sarean: <http://errobikofestibala.free.fr>.

**People Are Machines** banda danimarkarrak irabazi du Getxoko 31. Europar Jazzaldiko talde lehiaketa. Bakarlari onenaren saria ere talde horretako pianistak, Magnus Hjorthek, eskuratu du. Publikoak ematen dituen talde eta musikari onenaren sariak ere eurek jaso dituzte. Talde lehiaketako bigarren saria Andrew's Quartet banda errusiarrari eman diote.

**Gari** *Esperantzara kondentatua* izeneko diskoa kaleratuko du irailaren 27an. Musikari legazpiarrak azaldu duenez, lan berrian ere rock doinuaren alde egin du, baina aurreko diskoan baino soinu "gogorragoekin". Aurreko lanak bezala, azken hau ere Elkarrekin plazaratuko du.

**Mikel Lertxundi** artistak Donostia-ko Kur galerian jarri ditu ikusgai bere obrak. Erakusketak irailaren 13a arte izango da zabalik.



**Jon Bagues** Eresbil Euskal Musikaren Artxiboko zuzendaria izendatu dute Liburutegi Musikalen Nazioarteko Elkarteko presidenteorde. Bagues Historian lizentziatua da eta Bartzelonon doktoratu zen. Madrilen artxibogintzako eta dokumentazioko ikasketak burutu zituen. 1985ean Capilla Peñafiorida antzinako musika taldea sortu zuen.

**Iratxe Retolaza**, Edorta Jimenez, Eider Rodriguez, Leire Bilbao, Maria Do Cabreiro eta Daniel Salgado idazleek parte hartuko dute, besteak beste, hilaren 21ean eta 22an Ea herrian egingo den Poesia Egunak ekimenean. Mahai-inguruak, tertulia literarioak, errezitaldi musikatuak eta bideo-poemek osatuko dute egitaraua.

## Sean Snyder artistaren erakusketa Bilbon



Bilboko Rekalde aretoak bi erakusketa jaso ditu. Aurrenekoan Sean Snyder artista estatubatuarren obrak daude ikusgai. Argazkien, telebistako irudien eta bideoen bidez, hedabideek zabaltzen dituzten irudiek gizartean duten eraginaren inguruan hausnartzen du Snyderrek. Bilbora ekarri dituen

sei obretako batzuk, esaterako, Irakeko Gerra dute hizpide. Bigarren erakusketa Periferiak ([www.periferiak07.org](http://www.periferiak07.org)) jardunaldien barruan antolatuta dute. Bideoak, marrazkiak eta posterak bildu dituzte bertan, besteak beste. Erakusketa hau hilaren 29a arte izango da zabalik eta Snyderrena irailaren 2a arte.

## Itzulpen lehiaketaren 2. deialdia zabaldu du EIZIEk

**EIZIE** Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak Literatura Unibertsala bildumarako itzulpen lehiaketaren bigarren deialdia zabaldu du. 2007ko deialdiko itzulgaien zerrendan Emily Brontën *Wuthering heights*, Nadine Gordimerren *Burger's Daughter*, Molièren *Le Tartuffe* eta *L'Avare*, Fernando de Rojasen *La Celestina* eta Pere Caldarsen *Aquí descansa Nevares* daude, besteak beste. Proiektuak aurkezteko epea 2007ko irailaren 5ean amaituko da. Oinarriak eta itzulgaien zerrenda: [www.eizie.org](http://www.eizie.org).

**Katixa Agirrek Nabarra aldizkarian:** «Trudian oinarritzen dira gure komunikazioa eta gure kultura oro (...) Ardura gaitzen irudiaz pixka bat. Zergatik ez liburu-azal erakargarriagoak egin? Zergatik ez borrokatu liburu-dendetan euskarazko literatura Euskal Gaiak ghetotik aterarazteko, liburu denden gunean ikusgai egoteko? Zergatik ez birpentsatu medioetan egiten ditugun agerraldiak: beti triste, beti kexati, beti serio eta krisian?».

**Jon Urrutiak Deian:** «Jazza musika elektronikorantz hurbiltzea oso interesgarria da. Harekin gauzak egiten ari naiz, baina dedikazio osoa ez diot

eskaintzen. Ordenagailuena gai korapilatsua da. Ordenagailuaren aurrean piano aurrean baino denbora gehiago pasatzen hasten bazara...».

**Xabier Gantzarainek Berrian:** «Misterio pixka bat gorde behar du azal batek. Liburuari buruz dena esan gabe, giroaren berri eman. Irakurleari keinu bat egin, liburuan sar dadin. Portada esplizitu batek hil egiten du interes hori. Portada bat, azkenean, liburu saltzeko egina da, irakurlea harrapatzeko; liburuak daraman iragarkia da (...) Irudi ikaragarrietara ohituta gaudelako, beharbada zailago da irudi bakar batek interesa piztea».

## Komikiek ere bidaia luzeak egin ditzakete

*Bone.* Jeff Smith.

**Argitaletxea:** Astiberri. **Hizkuntza:** Gaztelania.

**Lehen hiru liburuen prezioa:** 15 euro (bakoitzak)


Laugarren zenbakia irailean kaleratuko da.

*Bone* liburuez hitz egitean, "nobela grafikoa" terminoa –modan dagoela dirudi– erabiltzen dute zenbaitzuk. Ez dakigu orrialde kopuruagatik (3. zenbakiak adibidez ia 200 orrialde ditu) ala obrari *katxe* edo *estatus* "altuagoa" emateko den. Nik "komikia" hitza erabiliko dut. horixe irakurri dudalako. Lotsatzeko motiborik ez daukat eta, gainera, uste dut ezin dela alderatu Paul Karasik eta David Mazzucchelli egokitu eta Harkaitz Canok itzulitako Paul Austerren *Kristalezko hiria* moduko liburu batekin, adibidez.

*Bone* komikietako protagonista nagusiak Fone, Phoney eta Smiley Bone lehengusuak dira. Izaki txuri sudur handi horiek ezustez betetako bidaiari ekingo diote, Phoney diruzalearen erruagatik euren herritik bidali dituztelako. Komikiaren argumentuak *Eratzunen Jauna* eleberriarekin antzekotasun handiak ditueta diote. *Eratzunen Jauna* irakurri nuen ("entretentzea" beste helbururik ez duen literatura komertzialaren etsai eruditoek barka nazatela) eta gustatu zitzaidan. *Bone* ere bai. Ez dira

berdinak, ordea. Abiapuntua antzekoa da, bai, baina hau –badaezpada ere berriro esango dut– komikia da. Umore dosi handiagok ditu –komikia izateak ez du esan nahi beti horrela izango denik– eta marrazkiek

argumentuak adinako garrantzia dute. Argumentua erakargarria da; baina marrazkiei dagokienez bada hutsunerik. Trazu argia dute eta pertsonaiak atseginak dira, baita munstro iletsu adardunak ere. Ez dira oso beldurgarriak eta tentsio une batzuek ere marrazki kaotikoago edo ilunagoekin dramatismo handiagoa izango lukete. *Eratzunen Jauna* liburuak –eta filmak– lortu zuen ezinegon hori transmititzea eta *Bonek* (batzuetan) ez. Hala ere, lehenengo hiru liburuak hozkada bakarrean irentsi ditut, istorioak pasarte entretenigarri ugari dituelako.



JON TORNER

HOTSAK			ERRABAL		
<b>SEXTY SEXERS</b> Unkarren Di Blues	<b>ROGELIO BOTANZ</b> Vuelcos	<b>GABY JOGEIX</b> Steal the Blues	<b>RACO GOÑI, DANNY BOY &amp; MINGO BALAGUER</b> Blues Harp Attack	<b>THE HECKLER</b> Zalamea	<b>JOSETXO GOIA-ARIBE</b> Los Pendientes de la Patru
EP BINILOA		Liburuak BOGGARREN HARIA		Liburuak PAPER HOTSAK	
<b>ROY LONEY &amp; SEÑOR NO</b> Bottle of wine	<b>JOXI UBEDA</b> BAPT Bai, adarki	<b>JON BURRUTXAGA</b> Rory Gallagher: Herriera eta laialtasuna	<b>XABI BORDA</b> Jotake. Unidan pop	<b>TXUMA MURUGAREN</b> Larruak eta lekuak. Iriziera	<b>IKOR KOTX</b> Rock & W&W Argazki liburuak
<a href="http://www.hotsak.com">www.hotsak.com</a>			<p><b>gazelupeko HOTSAK</b> Tel.: +34 943 783816 Fax: +34 943 790139 gazelupeko@hotsak.com</p>		